

AIREPORTUETAKO VIP ARETOAK ONLINE ERRESERBATEZKO ZEHAZTAPENAK ETA BALDINTZAK

1.- OBJEKTUA

Dokumentu honek Vueling Airlines, S.A.-ren webgunearen edo aplikazioaren bidez VIP aretoetarako sarbidea erosteko zehaztapenak eta baldintzak jasotzen ditu.

Baldintza Orokor hauek onartzea alde aurretiko baldintza, ezinbesteko eta nahitaezkoa da hemen azaldutako zerbitzuak kontratatu ahal izateko. Ez da erreserbarik onartuko Salmenta-baldintza hauek irakurri eta onartu dituzula baieztatu ezean. Erabiltzaileak adinez nagusi dela eta eskaintzen diren zerbitzuak kontratatzeke beharrezko legezko gaitasuna duela adierazten du.

2.- ZERBITZUAREN BALDINTZAK

VIP aretoak erreserbatzeko zerbitzuak azken kontsumitzaileei zuzenduta daude, euren erabilera eta gozamenarako, edo Erabiltzaileak legez jarduteko baimena duela adierazten duen pertsonen erabilera eta gozamenarako, Kontsumitzaileen eta Erabiltzaileen Defentsari buruzko uztailaren 19ko 26/1984 Lege Orokorraren, Kontsumitzaileen eta Erabiltzaileen Defentsarako Lege Orokorraren testu bategina onartzen duen azaroaren 16ko 1/2007 Legegintzako Errege Dekretuaren eta beste lege osagarri batzuen arabera. Beraz, guztiz debekatuta dago kontratatutako zerbitzuak birsaltzea edo lagatzea.

3.- IDENTIFIKAZIOA

Erabiltzaileak NANA, pasaportea edo baliozko beste identifikazio-dokumentu bat izan beharko du kontratatutako VIP aretoan sartu ahal izateko. Horrez gain, bidaiatze-txartela edo hegazkineratze-txartela aurkeztu behar du bertan sartzeko.

Beharrezko dokumentazioa ez izateagatik VIP aretoa ezin erabiltzea erabiltzailearen ardura bakarra da, eta ez da ordaindutako zenbatekorik itzuliko, halako egoeretan. Erabiltzaileak berriaz kontratatutako VIP aretoaren Zehaztapenetan eta baldintzetan eskatzen den dokumentazioa egiaztatzeke konpromisoa hartzen du, dokumentazio hori aireportuaren arabera alda daitekeelako.

4.- ARETOAK ERABILTZEKO ARAUAK

AENak kudeatzen dituen VIP Aretoetarako, erabilera-arau hauek aplikatuko dira. Beraz, kontsulta itzazu alde aurretik VIP areto bakoitzaren erabilera-arauak, balitekeelako arau hauen berdinak ez izatea:

- a. VIP aretorako sarbidea erregistratu behar duzu harrerako mahaian. Zure datuak konfidentzialak dira; beraz, errespetatu itzaroteko guneak eta gorde aurreko bezeroarekiko distantzia egokia. Bidelaguna baduzu, hura ere behar bezala identifikatuta eta akreditatuta egon beharko da.
- b. Aretoan egoten zaren bitartean, giro lasaia mantentzeko, diskrezioa eskatzen da, hitz egin tonu leun eta lasaian. Mesedez, moderatu zure gailu elektronikoen bolumena.

- c. Gure VIP aretoetan egoteko gehieneko denbora lau (4) ordukoa izango da, Aretora sartzen diren erabiltzaileen hegazkineratze-txartelean agertzen den programatutako irteera-ordua baino lehen. Hegaldien irteeran atzerapenak gertatuz gero, epe hori dagokion atzerapenaren iraupenaz luza daiteke.
- d. Bezeroek egonaldian Aretotik irtetea erabakitzen badute, berriro sartzen direnean, dokumentazioa aurkeztu beharko dute berriro.
- e. Higiene-arrazoiengatik, debekatuta dago Aretoan oinetakoak kentzea eta oinak sofetan eta mahaietan jartzea. Ez da onartzen sofetan etzatea.
- f. Maskotak aretora sar daitezke, baina gogoratu bidaia-kaxan egon behar dutela egonaldi osoan.
- g. Instalazioak egoera ezin hobean mantentzeko, bezeroei txukunak izatea eskatzen zaie, Aretoaren erabilera arduratsua egitea eta Aretoko langileei bertan aurkitutako irregulartasunen berri ematea.
- h. Seme-alaba adingabeekin bidaiatzen bazara, moderatu zure jokabidea. Ezin da korrika edo jauzi egin, baloiekin edo pilotarekin jolastu edo oihu egin. Adin txikikoak ezin dira inola ere bakarrik egon Aretoan.
- i. Aireportu osoan bezala eta indarrean dagoen legediaren arabera, ezin da erretzea, ezta zigarro elektronikoak ere.
- j. Ez utzi objektu pertsonalik zainduta gabe VIP aretoa ez da zure objektuek jasan ditzaketen lapurreta, hondatze, haustura edo kalteen erantzule egingo.
- k. Kontsumigarriak Aretoan erabiltzekoak dira soilik, eta ezin dira Aretotik kanpora eramane. Edari alkoholdun bat kontsumitu nahi baduzu, galdetu Aretoko langileei gure aukerari buruz.
- l. Nahi izanez gero, eskatu ongietorriko mahaietan telebistaren urrutiko agintea, mugikorren kargagailua edo eskuragarri dauden estutxe desberdinak (dutxatzekoa, jostekoa, oinetakoak garbitzekoa edo emakumezkoen higiene pertsonala)
- m. VIP aretoak doako wifi-sarea du bezeroentzat.

Berriro gogorarazten dizugu VIP Areto bakoitzak bere erabilera-arauak dituela eta ez dutela zertan aldeztu aurretik adierazitakoekin bat etorri behar, eta erabiltzailearen arduraren dela bakarrik dela horiek kontsultatzea eta errespetatzea.

5.- PREZIOA

Pantailan adierazitako zerbitzuen behin betiko prezioek barne dute BEZa eta, kontratatzeko unean indarrean dagoen estatuko, autonomia-erkidegoko eta tokiko beste edozein zerga.

Eskaintza, promozio edo deskontu bereziak, hala badagokio, baliozkoak izango dira adierazitako datara arte edo izakinak agortu arte.

Vueling Airlines-ek ez du inolako zenbatekorik itzuliko kontratatutako zerbitzuaz gozatzea erabiltzailearen ardura eskusiboa denean.

6.- UNEKO BALDINTZEN ETA ABISUEN ALDAKETA

Vueling Airlines, S.A.k Baldintza orokor hauei aplikagarri zaizkien baldintzak eta abisuak aldatzeko eskubidea gordetzen du. Vueling Airlines-ek baldintza hauek alda ditzake, erabiltzaileei jakinaraziz, aldeek berariaz adosten dituzte eskakizun horiek beteta daudela ulertuko dela Vueling-en www.vueling.com webgunearen bidez edo beste edozein bide fidagarriren bidez argitaratzen direnean.

7.- BESTELAKOAK

- i. Erabiltzaileak ulertzen eta onartzen du eskaintzen den VIP aretoaren zerbitzua Vueling Airlines, S.A.k kontratatutako kanpoko hornitzaile batek emandako zerbitzua dela. Baldintza hauen eta VIP Areto baten Hornitzailearen, jabearen edo kudeatzailearen termino eta baldintzen artean gatazkarik egonez gero, azken honek lehentasuna izango du eta Baldintza hauen gainetik gailenduko da.
- ii. VIP aretoetako harreran aurkeztutako *tiketek*, txartelek edo *voucher-ek* ez dute balioko manipulaturata badaude edo identifikazio-zenbakia argi irakur ezin badaiteke. Kasu horretan ere ez da dirurik itzuliko.

8.- KONFIDENTZIALTASUNA ETA DATU PERTSONALAREN BABESA

Datu pertsonalen tratamenduari buruzko informazio gehiago lortzeko, kontsultatu gure Pribatutasun-politika: <https://www.vueling.com/es/atencion-al-cliente/politica-de-privacidad>.

9.- LEGE APLIKAGARRIA ETA ESKUMENEN JURISDIKZIOA

Baldintza hauek beren xedapenen eta aplikatzekoa den Espainiako legediaren arabera interpretatu, arautu eta aplikatuko dira. Oro har, Baldintzek lege hauei jarraitzen die: Kontratatzeko baldintza orokorre buruzko apirilaren 13ko 7/1998 Legea, Kontsumitzaileen eta Erabiltzaileen Defentsarako azaroaren 16ko 1/2007 Legegintzako Errege Dekretu Orokorrean eta 3/2014 Legearen berrikuspena, Datu Pertsonalak Babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoa, Datu pertsonalen eta eskubide digitalen bermeari buruzko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoa, Txikizkako Merkataritza Arautzeko urtarrilaren 15eko 7/1996 Legea, Informazioaren eta Merkataritza Elektronikoen Gizarteko zerbitzuei buruzko uztailaren 11ko 34/2002 Legea eta aplikagarri izan daitekeen beste edozein tokiko edo eskualdeko arau.

Salmenta Baldintzen existentziaren, sarbidearen, erabileraren edo edukiaren ondorioz sortzen den edozein gatazkarako, kontratatzaileek, dagokiekien beste edozein foruri berariaz uko eginez, Bartzelonako Epaitegi eta Auzitegien jurisdikzio eta eskumen eskusiboari men egiten diote. Dena den, interesduna zerbitzuen beraren "kontsumitzailetzat" hartzen den kasuetan, ez zaio aplikatuko aurrez adierazitako sumisio-

klausula, baizik eta une bakoitzean dagokion jurisdikzioan kontsumitzaile gisa hartzen denari dagokiona aplikatuko zaio.